

92/2017 FORU AGINDUA, uztailearen 5ekoa, Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilariak emana, Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamendua onesten duen foru dekretua egiteko espedienteari hasiera ematea erabakitzen duena.

Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legearen azken xedapenetako lehenak ezartzen duenez, Nafarroako Gobernuak foru lege hori garatu eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak emanen ditu.

Lege testu horretan, berriz, gaikuntza zehatz batzuk daude, erregelamenduak zenbait gai eta prozedura gara ditzan. Adibidez:

- 15.2 artikulua, sarrerak eta gastuak denboran egozteko irizpideen eraginkortasun fiskalaren gainean.
- 16. artikulua, amortizazio koefizienteen eta metodoen gainean.
- 19. artikulua, finantza errentamenduko kontratuen gutxienerako iraupenaren gainean.
- 21. artikulua, ingurumen arloko planak ebazteko prozeduraren gainean.
- 25.2 artikulua, zerga-oinarrian kontabilitateko errebalorizazioen zenbatekoa sartzearen gainean.
- 27.1 artikulua, paradisu fiskaletako egoiliarrek edo haiekin egindako eragiketetan dauden dokumentazio betebeharren gainean.
- 29.3 artikulua, eragiketa lotuen merkatuko balioa egiaztatze prozeduraren gainean.

Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legeak, 41.1.d) artikuluan ezarritakoaren arabera, Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilariari dagokio, gaia dela eta, Nafarroako Gobernuari aurkeztea Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamendua onesten duen foru dekretuaren proiektua.

Abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legearen 59. artikulua adierazten duenez, gaiaren eskumena duen kontseilariak hasiko du erregelamendu-xedapenen prestaketa eta hark izendatuko du prozeduraren ardura izanen duen organoa.

Foru dekretu honen xedea da sozietateen gaineko zergaren erregelamendu berria onestea, haren edukia moldatzeko Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legearen onespeneren ondorioz zergaren araudian izandako aldaketetara.

I. titulua zerga-oinarriari buruzkoa da, eta hainbat gai garatzen ditu: sarrera eta gastuen denbora egozpena, amortizazioak, finantza errentamendurako kontratuak, hondatzearen ondoriozko galerak, gastu kengarrien mugak, plan bereziak ebazteko prozedurak, eragiketa lotuen balorazio eta dokumentazio arauak, baloraziorako alde aurreko akordioak, paradisu fiskaletako egoiliarren dokumentazioa eta zenbait aktibo ukiezinetatik eratorritako errenten baloraziorako alde aurreko akordioak.

II. tituluaren jasotzen dira zenbait jardueraren garapenerako pizgarri diren kenkari buruzko arauak, hala nola I+G+b arloko kenkaria, I+G+b proiektuetan parte hartzeagatik kenkaria, eta zinema-ekoizpenetan eta ikus-entzunezko serieetan egindako inbertsioengatik aplikatu beharreko kenkaria.

III. tituluaren gaia atxikipenak eta konturako sarrerak dira, eta IV. titulua araubide berezietan buruzkoa da. Nafarroako Zerga Ogasuna erakunde autonomoaren Estatutuak onesten dituen abuztuaren 28ko 135/2015 Foru Dekretuaren 19. artikulua Arauen Garapen eta Aholkularitza Juridikorako Zerbitzuari esleitzen dio tributu xedapenen proiektuak eta aurreproiektuak egin eta tramitatzeko eginkizuna.

Aurrekoa betez,

AGINDU DUT:

- 1.- Sozietateen gaineko zergaren Erregelamendua onesten duen foru dekretuaren proiektua egiteko prozedurari hasiera ematea.
- 2.- Nafarroako Zerga Ogasuna erakunde autonomoko Arauen Garapen eta Aholkularitza Juridikorako Zerbitzua izendatzea, proiektua dagokion espedientearen bidez egin eta tramitatzeko ardura duen organoa izan dadin.
- 3.- Foru agindu hau jakinaraztea Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentuko idazkari tekniko nagusiari eta Nafarroako Zerga Ogasuna erakunde autonomoko Arauen Garapen eta Aholkularitza Juridikorako Zerbitzuari.

Iruñean,

OGASUNEKO ETA FINANTZA POLITIKAKO KONTSEILARIA

Mikel Aranburu Urtasun